

ren lekuan beso miraritsua, ta azurrezko besoa sorbal-datik bera ipinita, besteakana ioan zan. Ezeban aurre-
rantzean Bakartegitik urten. Antše il zan, arpegia bi-
zar zuriz, gorputza tšimurrez, da arimea zerurako ira-
baziz beterik.

GURE EUSLEAK

Bat edo batek au irakurrieran izan leike esatea
¿zer da *euslea*? Eulea, eulia, erlea, elea, elia, egilea,
ekarlea ta osterantzeko *e-le* asko antšinatik dazauguz.
¿Zer dan *euslea*? *Euslea* da, Vascofillok *suscriptoria*
esango leuskeona; *eustea* da aren *suscribidutea*, ta
euspena suscricinoia.

Berbeari berari begiratuetzkerok, edozein elizsaguk
daki *sub-scribere* beko aldean eskutiztu edo iratsi edo
eskribidutea dana. EUSKALZALERI euren izena emon
dautsenak barriz, batek bere eztau ez beian ez goian
ezer eskutiztu. Euren izena emon dabenean, EUS-
KALZALERI, iausi ta il eztain, eutsi baino besterik ez-
tate egin.

¿*Eutsi* zer dan nok eztaiki? Iru berba dagoz (izan
leike geiago egotea) *subscribere*-n ordeaz esan leikeza-
nak: iaso, iroso ta eutsi. *Iasok* esan gura dau *levantar*,
lever; da ganera *soportar*, *supporter*. *Iroso-k*, Bizkaian
ezarren, *sostener*, *soutenir* esan gura dau. *Eutsi* ta
erdaldunen *asir*, *empoigner* bardinak dira. Iru berba
onetatik egokiena *eutsi* dala esan leike.

Berba orri ezarten iakazan *la* (*eusla* egiteko) ta *pen* (*euspen*
egiteko), ezaun ezaunak dira.

Entzula, *igarla*, *ikusla*, *ikasla*, *irakasla*, *egila*, *gorula*, *eula*, *iru-*
la, *iela*,... berba entzunak dira. *La* onek zerbait egiten dabena adie-
razoten dau. *Entzula*, entzuten dabena; *igarla*, igarten dabena; *ikas-*

la, ikasten dabena... ta bardin besteak. *Eusla* ta *eusten* dabena bat
dira.

Iraupen (Uriarte: Maiatzeko loraac-102), eragozpen (Peru abar-
ca 199,8), irakaspén (Lardizabal: Testamentu 10,22) ta amaiera
bardineko beste berba batzuk, *la*-dunak baizen ezaunak izan ezarren,
entzun da irakurten dira.

Pen onek eta beronen antzeko *men*-ek *mendi*-k eta *mendu*-k,
erdaldunen *operacion*, *opération* iragarten dabe. Alkarren antz andia
dauke berba-atal onek eta *tea*-k, baina ez tira bardin bardinak.

Ikusmena ta ikustea, irakaspéna ta erakustea, galména ta gal-
dutea edo galtzea, itšaropena ta itšarotea, sinizména ta siniztea, irau
pena ta irautea, ondamedia ta ondatutea, itsumedia edo itsumen-
dua ta itsupéna erdi-bardinak baino ez tira.

Giza onetanše *euspéna*-k eta *eustea*-k, bakoitzak beren aldetik,
erderazko *subscripcion*, *abonnement* esan gura dabe.

Gitši dira oraindino gure eusleak; baina geituko
dira; euskerea maite dabénak eta irakurri al daiénak
gitši ez tirealako.

Astean asteango albistari au, karua edo gareztia
edo merke-eza balitz, gure erri onetan asko ta asko
dagoz, sakela diruz baino biotza gogo onez beteago
daukenak, eta aregaitik esku gitšitara elduko litzake.
¿Nun dago baina albistari merkeagorik?

Merketsuago argitaratu nai genduan; baina ezin
leike. Albistari onek beste askon antzera, erdi-ingu-
rutik asita iragarriz (*anuncio*-z) beterik baleukaz beron-
en orriak, edo erderaz egin bear balitz, orduan mer-
keago emon al izango litzake, moldaginak errazago ta
arinago egingo leukeelako.

Eusleak, irakurle utsen aldean, obari batzuk (asko
ezarren) eukiko dabez; aurten inoiz baino gitšiago,
inoiz baino arazopetuago gagozalako.

Dana dala, EUSKALZALEK, beren eusle ta irakurle
guztai, urte barri osasuntsu onbidetsu arin arin arin
bat (zoriona arin ibiltén dalako) opa dautse, biotz
biotzetik.

MIRUA TA AMILOTŠA

O zein ikusgarria
dan mazti bat ona
matz ori-laru-zuriz
beterik dagona:
tširta bati goiz baten
tšio tšioketan
amilotšá asi iakan
onantše berbetan.

—Adiskide kutuntšu,
amilotš ederra
¿kerizarik ezaldok
sartu sabelera?
Sarritšu oi dabilzan
tšoriak maztian
ega-astun sorrak dira,
ak erantzun eutsan.

¿O zein negargarria
dan gizon gordinak
ezgauzakaitik keskan
beti iardutea;
ta muker ta ilunpean
ausia ebatera,
eriotza anka-arina
arteratutea!

Matz-zale dozak erroi
ta eskilasotzarrak
¿Nok entzun kanta-ordeko
euren karraskadaak?
Atorkit, eder ori,
keriza-adarrera;
ian ian azpértu baga
anpolai urmela.

—Keriza-azurrak saman
eginezkerok tšut
¿nok atara, laguna?
¿gingo aldaustak euk?

Miru zelatariak,
estutuaz saman,
amilotš gaisoari
erantzun eutsan: neuk.